

bizkaiko berrikuntza
behatokia
observatorio de la innovación
de bizkaia

aurre**TIK** 2019

BERRIKUNTZAREN INKESTA
BIZKAIKO TEKNOLOGI

www.barrixe.com




aurreTIK 2019

Azterketa hau egiteko oinarritzat hartu dira 2017ko Berrikuntza Teknologikoaren Inkestako datuak. Eustat – Estatistikaren Euskal Erakundeak eginiko inkesta horretan, hainbat aldagairen emaitzak jasotzen dira aribideko urterako eta aurreko bietarako (kasu honetan, 2015, 2016 eta 2017rako). Informazio hori ad-hoc eskatu dio Eustati Barrixe – Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak.


Inkestak dioenez, berrikuntza teknologiko bat da produktu (edo zerbitzu) berri bat edo nabarmen hobetu bat merkatuan sartua dagoena (produktuaren berrikuntza) edota establezimenduaren barruan prozesu berri bat edo nabarmen hobetu bat sartzea (prozesuaren berrikuntza). Elementu hauexetan oinarritzen da berrikuntza teknologikoa: garapen teknologiko berrien emaitzetan, lehendik existitzen diren teknologien konbinazio berrietan edota establezimenduaren beste ezagutza batzuen erabileran. Ez dira berrikuntza teknologikotzat hartu behar antolakuntza edo kudeaketa arloetako aldaketa hutsak.

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIETAN GASTATZEN DUTEN ENPRESAK GUZTIRA BIZKAIAN



2016

1.073.581.660 €




BATEZ BESTEKO GASTUA BIZKAIAN

829.661 €

Industria: 788.587 €
Eraikuntza: 284.394 €
Zerbitzuak: 887.323 €

2017

1.137.851.612 €



BATEZ BESTEKO GASTUA BIZKAIAN

988.576 €

Industria: 1.090.535 €
Eraikuntza: 363.784 €
Zerbitzuak: 981.205 €

Teknologi berrikuntzarako Jarduerak

Teknologi berrikuntzarako jarduerak zientzia, teknologia, antolakuntza, finantza eta merkataritza lanen multzoa dira, baita jakintza berrietarako egindako inbertsioa ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egitera daramaten edo eraman nahi duten jakintzak, alegia.

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %19,7k teknologi berrikuntzarekin lotutako jardueretan gastatu dute 2017. urtean, hau da, 2016an baino gutxiagok (%22,8).

Halere, Bizkaian teknologi berrikuntzetan eginiko gastua guztira 1.137,8 milioi eurokoa izan zen 2017an, eta horrek esan nahi du establezimendu bakoitzaren batez besteko gastua 988.576 eurokoa izan zela, hau da, 2016an baino handiagoa.


TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK DITUEN ESTABLEZIMENDUAK



KANPOKO I+D



MAKINAK AURRERATUA EROSTEA




BERRIKUNTZA JARDUERETARAKO PRESTAKUNTZA



KANPOKO I+D



DISEINUA ETA BESTE BATZUK



ESKUBIDEAK, PATENTEAK, LIZENTZIAK, KNOW-HOW, ETA ABAR EROSTEA.



KANPOKO EDO BARRUKO MERKATURATZE JARDUERAK, PRODUKTU BERRIAK EDO HOBETUAK SARTZEAREKIN ZUZENEAN ERLAZIONATURIK DAUDENAK.

Produktuan edo/eta prozesuan Berritzen duten establezimenduak

Berrikuntza teknologikoak egiten dituzten Bizkaiko enpresa berritzaileen portzentajea, hau da, produktu edota prozesu berritzaileak sortu dituztenena, %27,1ekoa izan da 2017an, hau da, aurreko urtean baino 0,6 puntu baxuagoa.

Produktu/zerbitzu berrikuntza gehienak establezimenduan bertan garatzen dira (%40,5) baina aukera horrek indarra galdu du 2017an, 2,4 puntu murriztu baita. Aitzitik, beste alternatiba batzuk indartu egin dira, esaterako, produktu/zerbitzuen berrikuntzak garatzea establezimenduan bertan eta beste enpresa edo erakunde batzuekin lankidetzan (%22,8 eta %18). Enpresako beste establezimendu batzuekiko lankidetzaren indartzea ere indartu egin da (%31,3tik %32ra).

Prozesuetan berritzen duten establezimenduei ere galdetu zaie nork garatu dituen prozesu horiek. Kasu honetan ez da aukera bat nabarmendu besteen gainetik eta antzeko portzentajearen kokatu dira establezimenduan bertan eginiko berrikuntzak (%29,4) eta beste establezimendu batzuekiko lankidetzan eginikoak (%30,3).


Bestalde, 2017an berrikuntzen %15,4 bukatu gabe zeuden, eta bertan behera uztearen tasa %3,7an kokatu zen (2016an %4koa izan zen).

PRODUKTU (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK) BERRIKUNTZA



2015-2017 ALDIAN MERKATURATUTAKO PRODUKTU (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK) BERRIKUNTZEK IZANDAKO INPAKTU EKONOMIKOA.

2017KO NEGOZIO ZIFRAREN % ONDOKO HAUEK DIRELA MEDIO



PROZESUKO BERRIKUNTZA



PROZESUKO BERRIKUNTZA-MOTA 2015-2017 EPEALDIAN BIZKAIKO ESTABLEZIMENDUETAN.



GARAPEN BIDEAN DAUDEN ETA BERTAN BEHERA UTZI DIREN BERRIKUNTZA JARDUERAK

GARAPEN BIDEAN ZEUDENAK



BERTAN BEHERA UTZITAKOAK



Berrikuntza teknologikoaren efektuak


Bizkaiko establezimenduen %95,1 en iritziz, berrikuntza teknologikoak efektu garrantzitsuak dauzka beren jardueraren garapenean. Portzentaje jori 2016koaren berdina da.

Nagusiki produktuen gainean du eragina (%89,4) eta kalitate handiagoa ematen die ondasun eta zerbitzuei (%80,6). Establezimenduen %76,4k uste du berrikuntza teknologikoak efektu garrantzitsuak dauzkala prozesuetan, produkzioarako edo zerbitzuak emateko gaitasuna handitzen duelako (%65).


Establezimenduen %68,9ren iritziz, garrantzitsuak dira enpleguaren gainean dituen efektuak, bereziki enplegua mantentzeari (%50,8) eta enplegu kualifikatua emendatzeari (%38,8) dagokionez.

Beste efektu hauek ere azpimarratu dituzte: inpaktu txikiagoa izatea ingurumenean (%42) eta ingurumen, osasun edo segurtasun araudietako baldintzak betetzea (%40).


EFEKTUAK PRODUKTUETAN / %89,4




EFEKTUAK PROZESUETAN / %76,4



EFEKTUAK ENPLEGUAN / %68,9



BESTE EFEKTUAK / %50,9




Lankidetza hitzarmenak dituzten establezimenduak

Bizkaian berrikuntzak sortzen dituzten establezimenduen %33,9k I+G-ko jardueren inguruko lankidetza hitzarmenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin 2015-2017 aldian. Portzentaje hori 2014-2016 aldikoa baino 2,7 puntu gorago dago.

Lankidetza akordio gehienak teknologi zentroekin hitzartzen dira (%65,9) eta ondoren ekipo, material, osagai edo software hornitzaileekin (%61,5), enpresaren edo enpresa taldearen beste establezimendu batzuekin (%59,8), unibertsitateekin eta goi-mailako beste irakaskuntza institutu batzuekin (%52,6) eta aditu eta aholkularitzekin (%43,5).

Eta eremu geografikoka, lankidetza nagusiki Euskadin kokatutako organismo edo enpresekin hitzartzen da (%89,9), portzentaje hori 10 puntu handitu delarik 2016koarekin alderatuta, eta Estatu gainerako erkidegoetan (%67,7) kokatutakoekin. Dena den, aipatzekoa da EBn kokatutako organismo eta enpresekin garatutako lankidetza %44,4koa dela eta portzentaje hori %38,1 handitu dela aurreko epealdikoarekin alderatuta. Halaber, munduko gainerako herrialdeetako erakundeekin garatutako lankidetza ere nabarmen handitu da, %20,7tik %27,9ra.

HIZKETAKIDE MOTA




Financiación pública de la innovación

Bizkaiko enpresa berritzaileen %44,1ek laguntza finantzario publikoa jaso du 2017an, mailegu edo diru-laguntza moduan, berrikuntza jardueretarako; portzentaje hori 2016. urtekoa baino 2,6 puntu txikiagoa da.

Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzak da laguntza gehien eman dituen administrazio publikoa (%63,9) eta Administrazio Zentrala (%35,2) eta Foru Aldundiak (%38) ere bai.

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN FINANTZAKETA PUBLIKOA GUZTIRA BIZKAIAN



SEKTOREAK




Berrikuntza eragozten duten faktoreak

Aztergai dugun inkestaren arabera, 2017. urtean Bizkaiko enpresen %64,8k eragozpenen bat aurkitu du bere berrikuntza jardueran; Portzentaje hori hiru puntu hazi da, beraz, egoera txarragoa da 2016koa baino.

Zailtasun gehieneko arrazoi nagusia faktore ekonomikoak izan dira (%53,6), baina enpresaren barneko faktoreek ere portzentaje handia hartzen dute (%43,9); lehenengoak 3,6 ugaritu dira 2016arekiko, eta bigarrenak berriz 2,6 puntu.

Faktore ekonomikoen artean, enpresen ia erdiak (%46,9) uste du zailtasun nagusia kostu handia dela. Bestalde, enpresen barneko zailtasunen artean langile kualifikaturik eza eta antolakundearen zurruntasuna dira gabezia nabarmenenak.

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK



Patenteak eta bestelako babes metodoak


2015-2017 aldian, Bizkaiko establezimenduen %9,0k patenteren bat eskatu du, patenteren bat indarrean zuen edo beren asmakizunak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili du. Gainera, soilik enpresa berritzaileak kontuan hartzen baditugu portzentaje hori %24,5ekoa da. Azken portzentaje hori 2014-2016ekoa baino 2,1 puntu handiagoa da.

Bizkaiko enpresen %6,1ek patenteren bat eskatu du bere establezimenduan garatutako asmakizunak edo berrikuntzak babesteko.


Establezimenduen %14,6k asmakizunak edo berrikuntzak babesteko bestelako metodoren bat erabiltzen du; horietatik erabiliena marka da (%11,1) eta, neurri txikiagoan, marrazki edo eredu industriala (%4,9) eta egile eskubideak (%4,9).

ENPRESAN GARATUTAKO ASMAKIZUNAK EDO BERRIKUNTZAK BABESTEKO

BIZKAIKO ENPRESAK GUZTIRA



BIZKAIKO ENPRESA BERRITZAILEAK GUZTIRA



Antolakuntzako berrikuntza


Antolakuntzako berrikuntza deitzen zaio enpresaren barne funtzionamenduan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan lehenago inoiz erabili gabeko antolakuntza metodo berriak sartzeari. Bizkaiko enpresen %15,5ek horrelako aldaketaren bat egin dute 2015-2017 aldian. Ehuneko hori 2014-2016 aldikoa baino 0,6 puntu handiagoa da.

Aldaketa portzentaje handiena eman da lanaren antolakuntzan, enpresa prozeduretan eta enpresa praktika berrietan (%87,6).


Antolakuntza arloko berrikuntza horiek ondorio hauetan islatzen dira: ondasun eta zerbitzuen kalitate hobea (%84,9), informazio truke eta komunikazio hobea enpresaren barnean edo beste enpresa eta erakunde batzuekin (%76,2) eta bezeroaren edo hornitzaileen premiei erantzuteko epe laburragoa (%76,3).

ANTOLAKUNTZA ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK ETA ERAGIN MAILA

ANTOLAKUNTZA ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK



EFEKTUAK




Merkaturatze berrikuntza

Merkaturatze berrikuntza deitzen zaio merkataritza estrategia edo kontzeptu berriak inplementatzeari; estrategia edo kontzeptu horiek aurretik erabiltzen zirengandik desberdinak izan behar dute eta sekula erabili gabeak. Aldaketa handia ekarri behar du produktuaren diseinuan edo ontziratzean, posizionamenduan, sustapenean eta prezioan. Bizkaiko establezimenduen %10,7k horrelako aldaketaren bat egin dute 2015-2017 aldian. Portzentaje hori 2014-2016 aldikoa baino 1,8 puntu handiagoa da.


Merkaturatze arloko berrikuntzen artean sustapen teknika berriak (%77,4) eta produktuak posizionatzeko metodo berriak (%73,9) dira aukerarik erabilienak.

Merkaturatze arloko berrikuntzek bi ondorio nagusi dituzte: bezeroaren premiei erantzuteko gaitasuna hobetzea (%83,1) eta produktuaren edo negozioaren ikusgarritasuna handitzea (%74,5).

MERKATURATZE ARLOKO BERRIKUNTZA MOTAK MERKATURATZE BERRIKUNTZA MOTA ETA INPAKTU MAILA



EFEKTUAK



Berrikuntza teknologikoko jardueretarako informazio iturriak


Establezimenduek emandako erantzunen arabera, informazioa oso aldagai garrantzitsua da enpresa berritzaileentzat beren berrikuntzak gauzatzeko orduan.


Berrikuntza teknologikoko jardueretarako informazio iturri nagusia merkatutik datozen informazio iturriak dira (%92,7), eta horien artean esanguratsuenak dira bezeroak (%71,5) eta ekipo, material, osagai edo software hornitzaileak (%69,8). Garrantzitsuak dira baita ere barruko iturriak (%84,9), hau da, enpresa barruko sail edo enplegatuak.

Iturri instituzionalen artean nabarmentzekoa da teknologi zentroetatik datorren informazioaren garrantzia (%35,4) eta beste iturri batzuek ere balorazio positiboak dituzte, hala nola konferentziek, azokek, argitalpenek edo sektore elkarteek (%40,6).

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO INFORMAZIOAREN GARRANTZIA

INFORMAZIO ITURRI DESBERDINEN GARRANTZIAREN %






Berrikuntza teknologikoko gastua egin duten establezimenduak sektoreka





Berrikuntza jardueretan gastua, jarduera motaren arabera



Berrikuntzan eginiko gastua BPGaren portzentajea




2013-2017 Epealdiko bilakaera Bizkaian




Bizkaia eboluzioa 2013-2017


Berrikuntza teknologikoa: Prozesuko edota produktuko berrikuntzak barne
Berrikuntza ez-teknologikoa: Merkaturatze edota antolakuntza arloetako berrikuntzak barne
EIN: bukatu gabeko berrikuntza teknologikoak dituzten edo berrikuntza teknologikoak bertan behera utzi dituzten establezimenduak




● Berrikuntza teknologikoa (EIN) eta berrikuntza ez-teknologikoa egin duten establezimenduak
● Berrikuntza teknologikoa (EIN) egin duten establezimenduak
● Berrikuntza bukatu gabe duten establezimenduak
● Bertan behera utzitako berrikuntza-jarduerak dituzten establezimenduak



Berrikuntza teknologikoaren efektuak



Berrikuntzaren beste alderdi batzuk





bizkaiko observatorio
berrikuntza de la innovación
behatokia de bizkaia

Jakizu zein den Bizkaiko enpresen berrikuntza-egoera

Kontsultatu gure web berria

Aukera izango duzu gure sare sozialekin bat egiteko eta berrikuntzari buruzko argitalpen guztiak partekatzeko. Horrela, hurbilagotik jarraituko dituzu Barrixe-n berrikuntzari buruz argitaratzen diren albiste guztiak.



Harpidetu gure buletinera.



Eskuragarri dagoen txosten luzeago baten bertsio laburtua:

www.barrixe.com

The screenshot shows the Barrixe website interface. At the top, there are navigation links for 'INFORMES', 'TENDENCIAS', 'AYUDAS', 'BOLETÍN', and 'EU'. The main content area is divided into several sections: 'Informe Destacado' (highlighted report) about 'Innovación en las Empresas de Bizkaia' (Innovation in Bizkaia Companies) for November 2018, featuring a statistic that 40.3% of companies in Bizkaia innovate in processes. Below this are 'Destacados' (highlighted) articles on food innovation, the Bikaintek 2019 program, and environmental fabric. The 'Informes' section lists reports on innovation in 2018, the 2019 Technological Innovation Barometer, patents and trademarks in Bizkaia, and external trade. 'Tendencias' (Trends) covers digitalization, social innovation, and artificial intelligence. The 'Ayudas' (Aid) section details various programs like 'Programa Bikaintek 2019', 'Ayudas en el ámbito de las Tecnologías Habilitadoras Digitales (THD)', 'Programa Interreg V-A España-Francia-Aragón (Pactos) 2014-2020', and 'Programa de Emprendimiento e Innovación Social 2019'. The 'Boletín' (Bulletin) section includes a subscription form and a preview of the latest bulletin, 'Ayudas para el Desarrollo de Tecnologías Habilitadoras Digitales'. The footer contains contact information, social media links, and legal notices.